




FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera atera ahal izateko, hainbat baliabide behar beharrezkoak ditugu, eta hauek talde ezberdinetan bereizten dira; Baliabide fisiko, intelektual, pertsonal eta finantziarioa.

Baliabide fisikoak:

Enpresak lokal bat behar du, bertatik lantaldea hobeto egin ahal izateko eta jendea gurekin harremanetan jartzeko. Beraz, gure lokala, Hípica kalean dago, Miramon-Zorroaga auzoan, Donostian, eta 90m² ditu.




Loiolako topotik lokalera, 8 minutu daude eta Donostiako zentrotik 30 minututara dagoelako aukeratu dugu. Eskaparate zabala du, komuna eta almazena. Lokala dagoen kalean (Hipica kalea) aparkatzeko zona dago, beraz, ibilgailua aparkatzeko tokia edukiko dugu.

Bestalde, material batzuk behar beharrezkoak ditugu proiektua aurrera ateratzeko, eta beste batzuk lagungarriak egingo zaizkigu.

Behar beharrekoa dugu:

- Mahia (oso handia).
- 4 aulki.
- 4 ordenagailu.
- Papertegia.
- Telefono eta Wifi linea.
- Elektrizitatea.
- Ura.



Lagungarria:

- Artxibategia.
- Proiektore bat.
- Inpresora.
- Inpresorako tinta.
- Arbela.
- Garbiketa produktuak.





Giza baliabideak:

Giza- baliabideei dagokionez, guk beteko dugu baldintza hori, hau da, gu izango gara enpresako langile bakarrak.

Hasteko, Ane izango da Orsus enpresarekin kontaktuan egongo dena, bera izango delako aplikazioaren itsura zehaztuko duena. Hortaz gain, Anek marketing-a eramango du.

Iratik, adiministrazio eta fiantzak eramango ditu, eta Enekok, salmenta ondorengo zerbitzua.

Azkenik, Nerea izango da gure estilista, eta berak eramango arropa eta estilismoarekin batera doazen kontzeptu guztiak.

Finantza baliabideak:

Hasierako gastuei aurre egiteko, eta sozietate anonimo bat sortzeko gutxieneko kapitala 3000 denez, bazkide bakoitzak, 750€ jarriko genituzke, eta aplikazioa sortzeko gastua eta beharrezko baliabideak betetzeko behar dugun dirua, mailegu bat eskatuz lortuko genuke.

Beraz, aplikazioa sortzeak iada 14750€ kostatzen du, eta aldi bateko produktuek 2920,55€. Hau kontuan hartuta, 15.000€ko mailegua eskatuko genuke.

Baliabide Intelektuala:

Behar ditugun baliabide intelektualak, patentea eta gure jakintzak dira.

Lehenengoari dagokionez, APPa egiteko ideia patentatuko dugu, eta horretarako 2600€ ordainduko dugu.

Bestalde gure jakintzei dagokienez, gutako bakoitzak, doako kutsillo txiki bat egingo du bere arloan, izan ere, bakoitzak badaki bere lana egiten, baina, emaitzak hobeak izateko eta ahalik eta hoberen lan egiteko, beharrezkoa ikusten dugu, eta gainera doakoa da.

